

GURPILGUNEA TAILLERRAREN BARNE ARAUDIA

1.- BAZKIDEAREN ESKUBIDEAK

- Bazkideek ez dute tailerreko giltzarik izango. Tailerra irekitzen den ordutegian azaldu beharko lukete. Etorkizunean, ordutegia zabalago bat izaten saiatuko gara bolondresen bidez. Hasierako ordutegia hau izango da:
Astearteak 10:00etatik 12:00etara
Ostegunak eta Ostiralak 17:00etatik 19:00etara
- Bazkideek tailerreko erreminta guztia erabiltzeko eskubidea dute, ez horrela bere bizikletarako repuestoak, rekambioak edo mantenimendurako produktuak (desengrasanteak, olioak, grasak, partxeak etab...). Hauek, bakoitzak bere kabuz ekarriko ditu. Tailerrekoak bizikletak birziklatzerako dira.
- Bazkideak bere bizikleta (edo patina, monopatina, karroa...) soilik konpondu ahal izango du, edo gehienez beste bazkide edo senide batena (odolkidetasun lehen mailara mugatua). Ez dira hirugarren pertsonen lanak honartuko.
- Bazkideak baimena eskatu ahal du bizikleta bat birziklatzeko, beti ere, bere helburua solidarioa bada eta elkarte baten bidez bideratuta.
- Bazkideek lehentasuna izango dute eskeinitako ikastaroetan parte hartzaileen kopurua gainditzen bada.
- Bazkidea kaleratua izan ahal da bere jarrera edo ekintzak Gurpilgunea proiektuaren izaera eta bizikidetzaren eragozten baditu, beti ere, Batzar Nagusi batean erabaki bada.

2.- OINARRIZKO ARAUAK

- Ez da hizkuntza sexistarik onartuko.
- Ez dira inolako errespetu faltak onartuko.
- Materiala eta erreminta zainduko da.
- Tailerra ixterakoan argiak itzaliak eta ura itxi egin beharko dira.
- Tailerra isterakoan ateak edo leihoak itxiak daudela ziurtatu beharko da.
- Bakoitzaren lanak egin eta gero erabilitako materiala, erreminta eta espazioa txukun utzi beharko dira: erratza pasaz, erreminta bere tokian gordez eta sortutako hondakinak behar bezala sailkatuz.
- Material edo erremintaren bat izorratu ezkerreko elkarteko arduradunari jakinaraziko zaio.
- Printzipioz tailerretik lan pertsonaletarako ez da inolako erremintarik aterako.
- Tailerrean, ez dira proiektu pertsonalak gordeko.
- Bizikletak eta mugikortasun jasangarriarekin zer ikusia duten bestelako lan pertsonalak egin nahi badira, elkarteko arduradunari baimena eskatu beharko zaie. Tailerraren erabileraren arabera, lan horiek egiteko egun eta ordu zehatz batzuk proposatuko dira. Proiektu pertsonala izanik, printzipioz ezingo da egun batetik bestera bertan utzi.
- Tailerreko irekiera ordutegia errespetatu beharko da. Itxiera ordua baino 15 minutu

- lehenago, lan pertsonala alde batera utzi eta jasoketa lanetan hasi beharko da.
- Zaborra atera. Lokala ixten duen pertsonak aterako du zaborra.
 - Lokalean sortzen diren hondakinak edo zaborra bereizi egin beharko dira birziklatzeko. (Papera, organikoa, ontziak eta gainerakoak) Birziklatu.
 - Tailerreko ordutegia herriko zarata araudiarekin bat egingo da. Adostutako orduetatik kanpo ezingo da zarata edo soinurik atera.
 - Elkarteko biltzarrean hartzen diren ardurak bete beharko dira. (*Adibidez, irekiera egutegi bat antolatzen bada eta nik egun batzuetan ireki egin behar badut, emandako hitza mantendu eta adostutakoa egin beharko dut.*)
 - Elkartea irekitzeaz arduratzen diren kideek ez dituzte gainontzeko kideen bizikletak konponduko, soilik aholkularitza lana egingo dute, betiere beraien mekanika jakintzaren arabera.
 - Bazkideak erantzukizun solidarioa izango du bere gonbidatuen kalte, haustura eta abarren gainean. Anomalia edo arazoren bat gertatuz gero, Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi beharko dio. Bazkide batek ikusitako eta salatu gabeko irregulartasun guztietan, bazkideak berak izango du irregulartasun horien ardura.
 - Erabilitako tresna guztiak bildu eta hondakinak garbitu beharko dira, horretarako jarritako lekuetan gorde beharko dira. Hondakinak dagokien edukiontzian utziko dira, motaren arabera.

3.- BAZKIDE-KUOTAREN ORDAINKETA

- Bazkideen urteko norbanako kuota 15 € koa izango da.
- Bazkide egiteko jarraian aurkituko dezun imprimakia bete behar da.
- Bazkide berriak egiteko garaian, Urriaren 1etik Martxoaren 30era bitartean kide egiten badira kuota osoa ordaindu beharko dute. Apirilaren 1etik Irailaren 31ra bitarte kide egiten badira kuotaren erdia ordaindu beharko dute.
- Kuota berritzea, Urriaren 1etik 15era egingo da.
- Kuota ordaintzen ez duenak ezingo ditu elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili.
- Kuotaren ordainketa egiteko, Zumardia elkarteko kontura transferentzia bidez edo esku-dirutan tailerrean bertan egin ahalko da.

GURPILGUNEA ELKARTEAREN BAZKIDE IZATEKO IZEN-EMATE ORRIA

BAZKIDE KUOTA:

1.- Banakako bazkidetza 15€/urtean (Izena ematen duen pertsona soilik).

BAZKIDEAREN DATU PERTSONALAK:

Izena eta abizenak:.....

N.A.N.:

HELBIDEA:.....

POSTA KODEA:.....HERRIA:.....PROBINTZIA:.....

TEL.1:.....

TEL.2:.....

E-MAILA:.....

ORDAINKETA:

Urteko BAZKIDE KUOTA ordaintzeko, bankuko helbideratze bitartez egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, jarraian duzuen SEPA agiria betetzea eskertuko genizueke.

Egun indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, ZUMARDIA ELKARTEAK jakinarazten dizu inprimaki honetan jasotako datuak Zumardia elkartearen titularitateko fitxategi automatizatu batean bilduko direla. Fitxategi honetan bildutako datuak ez zaizkio hirugarrenei utziko eta Zumardia elkartearen erabilerarako izango dira, eta ezingo ditu beste inork erabili. Datuok eskuratu, aldatu eta deuseztatzeko edo inori ematen ez uzteko Legeak aurreikusitako eskubideak erabili nahi izanez gero Zumardia elkartearen Zuzendaritzara idatziz jo dezakezu (info@zumardia.eus)

Tolosan, 202...koaren(e)an

Sinadura

Sinadura